

1949-I-28

Bilbon, mila bederatzireun eta berrogeta bederatzigarren urteko Ilbeltzaren ogeta zortzian, Euskaltzaindiaren etxean, Azkue jauna maipuru dabela, batzen dira Zemarripa, Krutwig ta Oleaga euskaltzaina il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo Azkue jaunaz irakurri dau "Curiosos documentos copiados en la Biblioteca de Berlin de los manuscritos de Guillermo Humboldt a 5 de Agosto de 1922" deritxon lan polit bat. Atseginez entzuz izan da.

Zamarripa jaunak irakurri dau gero "Vocablos monosilabos vizcainos" deritxon beste lan bikain bat. Au bere pozik entzuna izan da.

Azkenez Krutwig jaunak irakurri dau "Mistica, magia y lingüística" atzalburutzat daroan lan adigarri bat.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.^a Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga